

EUSKO JAURLARITZA

Turismo, Merkataritza eta
Kontsumo Saila



GOBIERNO VASCO

Departamento de Turismo,
Comercio y Consumo

COVID19 EZOHIKO LAGUNTZAK, MERKATARITZA- SEKTOREARI LAGUNTZEKO



Xedea: Euskadiko autonomo, mikroenpresak, eta txikizkako merkataritzako enpresa txikiak babestea eta laguntzea, COVID-19ren ondorioz jasaten ari diren inpaktua minimizatzeko eta, behin osasun-alarmaren egoera amaituta, ahalik eta lasterren berriz abiarazteko; Itzuli beharrik gabeko laguntzen bidez, gastu operatibo nagusiak estaltzeko, langileen gastua izan ezik.

Baliabide ekonomikoak: 7.500.00 €

Erakunde onuradunak: pertsona autonomoak, mikro eta txikizkako enpresa txikiak* negozio-bolumenari dagokionez, jarduera nagusia txikizkako merkataritza-jarduera dutenak**, ondasun-erkidegoak edo sozietate zibilak barne, egoitza fiskala eta soziala eta establezimendua Euskal Autonomia Erkidegoan dituztenak, baldintza hauekin:

- Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak erabat eten du beren jarduera.
- Beren jardueraren salmenten murrizketa %75etik gorakoa izan da***

yeta martxoaren 14a baino lehen ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emanda egon dira.

* (50 langile baino gutxiago izanik, urteko negozio-bolumenean edota urteko balantze orokorrean 10 milioi euroko kopurua gainditzen ez duen enpresa).

** (Helburu horrekin eskuratutako produktu edo merkantziak, funtsezko aldaketarik gabe, merkatuaren eskura jartzea, bai eta ekoizleek, artisauek edo industrialariak zuzenean azken kontsumorako ondasunak saltzea ere. Halako ondasuntzat jotzen dira hirugarrenei zerbitzuak eskaintzeko, ekoizteko edo merkaturatzeko prozesuetan integratzeko ez direnak).

**** 2020ko martxoaren 14tik apirilaren 13ra bitarteko aldian egindako salmenten neurria, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta; edo, jardueraren hasieraren arabera egingarria ez balitz, alarma egoera deklaratu aurreko hilabetean.



Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak:

- a) Jardueraren establezimenduaren alokairua ordaintzea (establezimendu bakarra), betiere eskatzailearen etxebizitzaren zati ez bada eta errentatzailearekin ahaidetasun-harremanik ez badago, eta beste enpresa batekin partekatutako espazioa ez bada.
- b) Jarduera garatzen den establezimendua erosi izanagatik, hipoteka-maileguen edo mailegu pertsonalen kuoten ordainketak.
- c) 2020ko udaberri-udako stocka erosi izanagatik sortu den gastua, alarma-egoera indarrean jarri aurretik eskuratu eta jasotakoa.
- d) Honako gastu arrunt hauek:
 1. Energia-hornidurak, telekomunikazio-zerbitzuak eta aseguru-primak.
 2. Merkataritza-elkarteetako afiliazio-kuotak.
 3. COVID-19rekin zerikusia duten laguntzetarako aholkularitza- eta kudeaketa-zerbitzuak kontratatzea, martxoaren 14tik laguntza eskatzen den unera arte, 150 euroko mugarekin.

3Elkarren
segidako 3
hilabete, 03/14tik
08/31ra

Elkarren segidako 3
hilabete, 03/14tik
08/31ra

Fakturan jasanarazitako Balio Erantsiaren gaineko Zerga ez da gastu hautagarritzat hartuko.

Ez dira onartuko zenbateko garbia, BEZa kanpo, 100 €-tik beherakoa duten gastuak.



Laguntzen banakako zenbatekoa:

- Aurkeztutako kontzeptu bakoitzaren %100.
- Gehieneko diru-laguntza: 3.000 € enpresa bakoitzeko.
- Diru-laguntza jasotzeko aurkeztutako eta onartutako gastuak, BEZa kenduta, ez dira inola ere izango 750 €-tik beherakoak, enpresa bakoitzeko.

Bateragarritasuna:

Bateragarriak dira beste edozein diru-laguntzarekin, betiere diruz lagundutako aldian kontzeptuaren kostua gainditzen ez bada. Gaindituz gero, agindu honetan emandako laguntzari gaindikinaren zenbatekoa kenduko zaio.

Agindu honetan jasotako laguntzek minimis arauak errespetatuko dituzte.



Prozedura:

➤ Eskabidea:

- Izapidetze elektronikoa
- Aurkezteko hilabeteko epea, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.
- Eskabide bakarra enpresa bakoitzeko, eta gastuak establezimendu bakar bati dagozkio.
- Bete eta aurkeztu beharreko dokumentazioa:
 - Eskabide-dokumentua, enpresari buruzko informazioarekin.
 - Eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko erantzukizunpeko adierazpena.
 - Aurkezten diren gastuen zerrenda, kontzeptua, denbora-eremua eta zenbatekoa zehaztuz (BEZik gabe).
 - Erakunde eskatzailearen IFZ edo IFK.
 - Eratze-eskiriturak, enpresaren kasuan, edo eratze-kontratua, Ondasun-erkidego edo Sozietate Zibilaren kasuan.
 - Jarduera Ekonomikoen gaineko zergan izandako altak eta bajak egiaztatzeko agiri historikoa.

➤ Zuzenketa:

- Eskabidearekin batera, behar den dokumentazioa aurkeztu ez bada, 10 eguneko epea emango da zuzentzeko. Epe hori igarota, eskaerari uko egin zaiola ulertuko da.



➤ Eskabideak aztertzea eta ebaluatzea:

Baremazio-irizpide objektibagarriak aplikatuz sailkatzea. Eskabideak, ondoren ezarritako baremazio-irizpideen arabera aztertu eta ebaluatuko ditu ebaluazio-batzorde batek. Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari atxikitako pertsonak osatuko dute batzorde hori.

➤ Baremazio-irizpideak:

1. irizpidea: Jardueraren etete-egoerak urteko salmentetan duen eraginaren zenbatespena. 2019. urteko guztizko salmentak kontuan hartuz, ekitaldi horretako lehen (LH) eta bigarren (BH) hiruhilekoetan egin ziren urteko salmenten ehunekoak hartuko da, hurrenez hurren, eta bigarren hiruhilekoko ehunekoaren balioa (1,3) pixka bat gaindituko da.*

irizpidea guztira = Lehen hiruhilekoa + Bigarren hiruhilekoko ehunekoak x 1,3

2. irizpidea: eragiketa gastu edo kargen ukipena.

Hainbat kontzepturengatik laguntza-eskaera aurkezten denean, baloratu egingo da:

- Lokalaren alokairua (A) edo hipoteka-kuota (B) (25 puntu)
- Sasoiko produktuen erosketak (C) (20 puntu)
- Gastu arruntak (D) (15 puntu)

2. irizpidea guztira = (A edo B) + C + D.

* (2018ko abenduaren 31z geroztik eraturako merkataritza-jardueren kasuan, eskabide guztien batez besteko puntuazioa esleituko da, salbu eta erakunde eskatzaileak benetako fakturazioari dagokion puntuazioa aukeratzen badu).



3. irizpidea: jarduera-denbora.

Jardueraren iraupenak edo ibilbideak duen eragina honela baloratuko da:

- Urtebetez baino gutxiagoz irekita egon bada (8 puntu).
 - 1 eta 5 urte bitartean irekita egon bada (4 puntu).
 - 5 urtetik gora irekita egon bada (2 puntu).
- 1., 2. eta 3. irizpideetan lortutako puntuazioen baturak sailkapen ordenatua ekarriko du, handienetik txikienera, eta, sailkapen horretan, laguntzak hurrenez hurren esleituko dira, aurrekontu-zuzkidura agortu arte.
- Berdinketarik izanez gero, honako irizpide hauek erabiliko dira, hurrenkera honetan:
- 1.- 2019ko salmenta-zifrak, txikienetik handienera ordenatuta. 2020ko urtean eratutako erakundeen kasuan, 2020ko martxoaren 14ra arte egindako salmenten kopurua hartuko da kontuan.
 - 2.- Aurreko hiru baremazio-irizpideetan lortutako puntuazio handiena, bata bestearen atzetik aplikatuta, berdinketa hautsi arte.
 - 3.- Azkenik, Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta eman zen eguna, eta berrienak du lehentasuna.



➤ Diru-laguntzaren Ebazpena eta Ordainketa:

- Eskabideak aurkezteko epea amaitu, eta 6 hilabetera arteko epe administratiboa; hala ere, adierazitako muga hori gorabehera, ebazpenaren eta ordainketaren azkartasuna bilatuko da, eskaera egiten den egunetik ahalik eta hurbilen erantzuteko.
- Diru-laguntza onartu eta gero, ordainketa bakarrean emango da, onarpenaren epea igaro ondoren. Epe hori 10 egunekoa izango da, jakinarazpenaren datatik zenbatzen hasita.

➤ Gastuen justifikazioa:

- 2021eko urtarrilaren 29ra arte.
- Alarma-egoera amaitu eta, gutxienez, 4 hilabetez mantendu beharko da enpresa zabalik.
- Honako hauek aurkeztu beharko dira:
 - a) Diruz lagundutako gastuen zerrenda sailkatua, enpresa hartzekoduna identifikatuz (IFZ/IFK eta sozietatearen izena), jaulkipen-data eta fakturaren zenbakia, kontzeptua, zenbatekoa BEZik gabe eta ordainketa-data adierazita.
 - b) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo diru-laguntza batzuen erantzukizunpeko adierazpena, zenbatekoa eta jatorria adierazita.



Ondoren, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko teknikariek egokitzat jotzen dituzten frogagiriak egiaztatu ahal izango dituzte; kasu horretan, honako hauek eskatuko dituzte:

- Gastuak aurkeztu dituen establezimenduari dagozkion alokairu-kontratua, faktura eta alokairua ordaindu izanaren banku-egiaztagiriak.
- Hipoteka-maileguaren edo mailegu pertsonalaren jabetza- eta formalizazio-eskriturak, bai eta mailegu horren kuota ordaindu izanaren egiaztagiriak ere, gastuak aurkeztu dituen establezimenduari dagozkionak.
- Faktura, udaberri-udako denboraldiaren produktuen zerrendarekin (eta xehetasunik agertzen ez bada, albarana) eta stock-a ordaindu izanaren frogagiria.
- Jarduera eteteak urteko salmentetan duen eragina egiaztatzen duen kontabilitate-dokumentazioa.
- Baremazio-irizpideetan emandako datuak betetzen direla egiaztatzen duen kontabilitate-dokumentazioa.

➤ **Ikuskapena:**

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak egokitzat jotzen dituen ikuskapenak eta egiaztapenak egingo ditu, eta enpresa onuradunek, eskatzen zaien informazio osagarri guztia eman beharko dute.